

Herriarteko Sindikatuak «proposamen arrunt eskasa» dela erran du aho batez

Hala ere Jean Grenet eta Frantxua Maitiak Kontratu Planaren aldeko botoa emanendute

Hur Gorostiaga / Baiona

Ipar Euskal Herriko 145 udalen ordezkari biltzen dituen Euskal Kulturaren Sustengurako Herriarteko Sindikatuak aho batez salatu zuen atzo Kontratu Plana «proposamen arrunt eskasa» dela. Hala ere, Jean Grenet eta Frantxua Maitiak alde bozkatuko dute bihar.

HERRIARTEKO SINDIKATUAK ezohiko mozioa onartu zuen atzo. Jakes Abeberri Miarritzeko auzapezorde abertzaleak aurkeztu eta 145 Iparaldeko udal ordezkari biltzen dituen biltzar nagusiak aho batez onartu zuen «arrunt eskasa» dela salaturik.

Jean Grenet Baionako auzapez eta herriarteko sindikatuaren buruak heldu den astelehenean Bordelen egitekoa den Kontratu Planaren bozketan mozioaren berri emanen zuela adierazi zuen, gisa berean eskualde kontseilaria baita Grenet (UDF). Hala ere, Kontratu Planaren alde bozkatuko duela aitzinatu zuen.

Frantxua Maitia eskualde kontseilari sozialistak ere gisa berean jokatu duela adierazi zion atzo EGUNKARIA-ri. «Akitaniak eta Estatuak Kontratu Plan batean sekulan euskarari eta Euskal He-



BOB EDME

Jean Grenetek planaren aldeko botoa emango du bihar.

rriari eman dioten dirurik gehiena» izanen dela erran zigen. «Erakuts dezagun ukanen ditugun diruak ontsa baliatzen badakigula, eta ondolik diru gehiago galdegiten ahalko dugu», zehaztu zuen.

Jean Jacques Lasserrek (UDF), aldiz, duda gehiago agertu zuen EGUNKARIA-k galdera egitean. «Gauza anitz dago oraino zintzilik eta Alain Rousset lehendakariak argitu beharko ditu astelehenean. Nik ez dut atal batengatik edo bestearengatik alde edo kontra bozkatuko, orokortasunari begiratuko diot», adierazi zuen. Euskararendako neurriei buruz, «zintzoki errateko, 17 milioi lortu badi-ra hizkuntz gutiengoarendako, niri esker izan da» iharde-tsi zuen, Hautetsien Kontseiluko lehendakari gisa erantzukizun handia izan baitu. «Egia da gehiago izan zitekeela, baina zinez diot ahal dudan guztia egin dudala, hitzarmena Rousset sozialistak izenpetzen baitu, eta ez guk», adierazi zuen Bordeleko oposizioko hautes-tsi gisa.

RPRko Max Brisonek eta Colette Capdevielle sozialistak alde bozkatuko omen dute, eta Jean Lissar hautes-tsi Berdeak, berriaz, azpiegi-turatan hartuko diren orien-tabideen arabera hartuko du erabakia.

mozioa

«Erabakitakoaren oso azpitik»

Euskal Kulturaren Sustengurako Herriarteko Sindikatak atzo Hazpamen aho batez onartu mozioa honako hau da:

■ «EUSKAL Kulturaren Sustengurako Herriarteko Sindikatak bere harridura agertu nahi du astelehenean Eskualde Kontseiluan bozkatzeko duten Kontratu-Planean euskararendako aurreikusita dagoen aurrekontua dela medio.

Izan ere, Ipar Euskal Herriko Hautes-tsien Kontseiluak sei neurri aurkeztu zituen (jadanik Lurralde Eskemaren hiz-

kuntz arloaren zati bat besterik ez dena) Kontratu-Planean sartzeko. Neurri horiek gauza-tzeko aurreikusitako aurrekontua 26,5 milioi liberakoa zen Estatu eta Akitaniari dagokien zatian. Egun ageri da, 17 milioi libera euskal eta okzitandar hizkuntzendako emanak direla; hau da, 8,5 euskararendako (1,21 milioi urte-ko).

Proposamena arrunt eskasa iduritzen zaigu, Lurralde Eskemako partaideek eztabaidatu eta erabakitakoaren oso azpitik kokatzen baita.

Eskualde Kontseiluari eta Estatuari galdegiten diegu euskararendako aurrekontua berri-kus dezaten, heldu diren 7 urteetan euskarak bere garapenerako ezinbestekoak dituen ahal-menak ukan ditzan».

Apirilak 9 goizeko 11etan Iruñeko Gazteluko Plazan

Euskararen Lege berri baterantz

manifestazioa

EUSKARAREN ALDE

Ondotik, Aranzadin egun osoko besta

Gazteluko Plaza

Carlos III

Orreaga

Amaia

Estafeta

Nabarrerria

Carmen

Bukaera Aranzadin

25 MIA sinadura lege berri baterantz

OINARRIAK